

## 2024ko AURREKONTUAK:

### **SARRERA, kokapena:**

Urriaren 27an Zumarten antolatu ekitaldian, "Herri bat: lau misio" izeneko proiektua aurkeztu genuen. Ekitaldi horretan jendaurrean erakutsi nahi izan genuen orain arte udalean egindako bidea, eta hurrengo aste eta hilabeteetan herritarrekin eta eragileekin egin asmo dugun bidea.

Zer dira, baina, misioak? Mariana Mazzucatok, Ingalaterran bizi den ekonomista italiarrak, misioetan oinarrituta lan egitea proposatzen du. Proposamen hori egiteko, konkretuki, honako esperientzia hau hartzen du oinarritzat berak: 1962ko irailean, John F. Kennedy Estatu Batuetako presidentea jendaurrean agertu zen, eta adierazi zuen Estatu Batuak *"gizadiak inoiz burututako abentura ausart, arriskutsu eta handiena burutzeraz ziola"*: hamarraldia bukatu baino lehen pertsona bat ilargira eraman eta bizirik ekartzea, alegia. Hortik abiatuta, Mazzucatok *"moonshot"* pentsamendua sortu zuen. Pentsamendu horren ustez, egungo gizarte erronka konplexuei erantzuteko, ezinbestekoa da gizarteko eragile ezberdinen artean helburu inspiragarri eta anbiziotsuak sortzea, ondoren helburu horiei lotuta proiektu berritzaileak sortzeko.

Eta hori da, hain zuzen, labur esanda, Usurbilen egin duguna: helburu inspiragarri eta anbiziotsuak ezartzen saiatu gara, gure herriko eragile eta herritarrak motibatuko dituen Usurbilgo eraldaketara.

Hala, hiru misio aurkeztu genituen, arlo hauetan lankidetzan ari garen eragile ezberdinekin batera adostu ditugunak:

1) **zaintza**ren erronkari dagokiona: 2030erako norbere bizitza proiektuari erantzungo dion zaintza eredu integral eta duina lortzea, erantzunkidetasuna, eragileen arteko lankidetzaz, eta zaintza langileen profesionalizazioa eta duintasuna ardatz izango duena.

- Hala, zaintza ekosistemaren inplementazioan aurreraurrats nabarmenak egiteko diru partida handitu dugu.

2) **650 Usurbil bizi** proiektuari ezarri dioguna: 2030erako Usurbilgo bisitarien % 30ak Usurbilgo komunitate zainzailea, euskal arte garaikidea, ondare kulturala eta ekologia ardatz duen gizarte eraldaketa ezagutu eta bisitatu dezala lortzea.

- 14 Usurbilen garapenean, urratsak egiten jarraitu nahi du, eta hainbat lehentasun finkatu: Ez dok Amairuren Usurbil, Sagardoaren Usurbil edota Erriorearen Usurbil.

3) **Udala herritarrengandik gertu**ago egoteko: 2026rako udalak herritarrei ematen dien zerbitzua 10ekoa izatea: gehienez ere 10 minutu itzarotea zuzeneko arretan, herritarren eskaerei 10 eguneko epean erantzutea, eta udala osoki digitala izatea.

- Udalaren digitalizazioan jarraitzeko, hainbat inbertsio aurreikusi dira.

Usurbilek laugarren misio bat ere badu, ordea, izan ere, Usurbil jasangarriagoa eta bizigarriagoa zerumugan, ezin dugu Usurbil ulertu trantsizio ekosozialaren erronkari erantzun gabe. Horregatik,

trantsizio ekosozialari erantzuteko herri misio bat eraiki nahi dugu, eta hori ahalbidetuko duen kosorkuntzarako parte hartze prozesu bat abiatuko dugu abenduaren 14ean.

**2024ko aurrekontuak, beraz, misioei erantzuteko helburuz osatu ditugu, eta kapitulu guztietan jaso dira diru-partidak misio edo erronka horiei erantzuteko.**

**Horretaz gain, gure legealdi planean jasota dauden beste hainbat proiekturi bide ematen hasteko diru partidak aurreikusi ditugu, esate baterako, Etxebizitzen erronkari heltzeko edota Elkargunea eraikitzen hasteko.**

**Halaber, azken urteotan egin bezala, auzoak berritzeko inbertsioak ere aurreikusi ditugu, bertako komunitatearekin batera lantzen ari garenak.**

**Beraz, 2024ko aurrekontuak herri misioei erantzuten jarraitzeko bokazioz ondu ditugu.**

## **SARRERAK**

- **2024ko Sarrerei dagokionez**, Usurbilgo Udalak datorren urtean 13 milioi pasa euroko aurrekontua izango du: **13.117.569,45 €**, hain zuzen ere, iaz baino zertxobait gutxiago: 203.630,55 € gutxiago (-%1,54). Edonola ere, azken hamarkada honetan udalak izan dituen aurrekontuei begiratuz gero, oso aurrekontu altua izaten jarraitzen du.
- Iaz, Zapategi eremuko (Michelin alboko partzela) garapenetik, hirigintza aprobetxamendu gisa, 861.189 € aurreikusi genituen, eta horrek eragin zuen diru-sarrerek gora egitea, oso modu nabarmenean.
- 2024ean ez dugu aparteko diru-sarrera “berezirik” espero; edonola ere, gora egin dute nabarmen diru sarrera batzuek, eta horregatik, iazkoaren pare gaudela esan daiteke, nabarmenenak, honako hauek:
  - **Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik** 5.422.827,00 € jasoko ditu 2024ean, iaz baino 389.183,00 € gehiago, eta hori izaten da udalon diru sarrera nagusia, hots, diru sarreren herena baino gehiago.
  - **Zuzeneko zergetan** igoera aurreikusten dugu, iaz baino 283.509,36 € gehiago biltzea aurreikusten baitugu, guztira, 3.363.412,36 €. Igoera esanguratsuenak plusbalian eta Jarduera Ekonomikoaren Zergan (milioi bat euro baino gehiagoko fakturazioa duten enpresak zergapetzen dira, eta duela bi urteko fakturazioa hartzen da aintzat. Ekonomiaren hobekuntza, pandemiaren azken urtea) aurreikusten ditugu.
  - **Ura eta estolderiako tasan** ere igoera aurreikusten dugu, aurtengo ordenantza fiskaletan egin dugun aldaketaren ondotik: 172.789,08 € errekaudatuko ditugu. Gogoratu zer egin dugun: orain arte ez bezala, arazketagatik ere kobratuko dugu (%8

gehiago). Kontzeptu berri bat da tasa honetan; herri gehienek dutena, baina Usurbilen ez zena orain arte aplikatzen. Uraren tasak bi kuota ditu: finkoa eta aldakorra, norberak duen kontsumoaren arabera. Datorren urtean tarifa aldakorrari %20a aplikatuko zaio arazketagatik ordaindu beharrekoa. Estolderiagatik %75a ezartzen da. Beraz, guztira, estolderia eta arazketa erabilerarengatik ur kontsumoaren %95ekoa izango da hiruhileko bakoitzean.

- Gainerako tasetan, ordenantza fiskaletan onartutako KPIaren arabera igoera orokorra ezarri da. Prezioen garestitzeak udaloi ere gogor ari zaigu kolpatzen, eta, ondorioz, azken urteotan udalak eskaintzen dituen zerbitzu publiko bakoitzaren gaineko azterketa ekonomiko zorrotza egiten ari gara, eta balantze hori eskutan erabaki dugu **2024rako tasa, zerga eta prezio publikoei KPIaren arabera igoera orokorra ezartzea, hots, %2,9** (2022ko abuztua eta 2023ko abuztuaren arteko KPIaren igoera Gipuzkoan, beste urteetan erabili dugun erreferentzia bera), **hobari sistema indartsua mantentzearekin batera.**
- Gogoratu udalaren hobari-sistema: igoera hori apenas nabaritu duite hobariak jasotzeko aukera duten familiek. Ordenantza fiskaletan hobariak jasotzeko eskubideak eta aukera oso zabala da. Egun 1.188 €-ko diru-sarrera ( 14 pagatan) baino txikiagoa duten pertsona bakarrak osatzen duen bizikidetz-unitate guztiek izan ditzakete tasa eta prezio publikoetan %90 arteko hobariak jasotzeko aukera, eta 2.494 € ko diru-sarrera (14 pagatan) 4 kideko unitateek. Une honetan 200 familia inguru dira hobaridunak.
- Sarreretan, badira, aipatzekoak **diru-laguntza bidez jasoko ditugunak**: Ur sistema digitalizatzeko Europako funtsetatik 228.000 € lortu ditugu, eta zaintza eredu berriaren inplementaziorako dirulaguntza esanguratsua lortuko dugu. Beraz, 300.000 € inguruko dirulaguntzak jasoko ditugu, eta baditugu prestatuak beste hainbat proiektu ere, Europako funtsetatik etor daitezkeen deialdietara aurkezteko.

## **GASTUAK:**

### Kapitulukako edota sailez saileko egitasmo aipagarriak:

- **Lehen kapituluak**, berriz ere, gure aurrekontuan pisu handia izaten jarraitzen du: aurrekontu osoaren % **37,43** hartzen du (**4.871.698,36 €**), iaz baino 269.128,36 € gehiago bideratuko ditugu pertsonal gastuetara, % 5,85 gehiago, alegia. Zerbitzu publikoaren alde egiten dugun apustuaren adierazgarri.

Bi arrazoik motibatuta dute igoera:

- 1) Langileen soldata igoera. Datorren urtean soldatak %2,5 igotzea aurreikusten da.
- 2) 3 kontratazio berri, lehen azaldutako erronka eta misioei erantzuteko:

- zaintza ekosistemaren koordinaziorako. Ezin dakiok erronka honi erantzun, giza baliabide gehiago bideratu edo eskaini gabe. Gizarte Zerbitzuen departamendua handitzea ezinbestekoa da.
- Lurraldea lantaldea indartu, nagusiki, etxebizitzaren erronkari erantzuteko. 2024 urte hasieran irekiko dugu Txirikorda eta hori erronka handia da udalarentzat. Horrez gain, etxebizitza hutsen inguruko diagnostikoa ere osatu nahi dugu, hutsik dauden etxeak merkatu publikora ateratzeko ahalegina egiteko, eta erronka horrentzat giza baliabideak behar ditugu. Gainera, datorren urte hasieran eman nahi diogu behin-behineko onarpena HAPOari, eta horrek lan karga handia ekartzen dio egunerokoan hirigintza buruari, eta horregatik ezinbesteko ere errefortzu hau. Beraz, bi dira helburuak: hirigintzako lan karga arindu eta herritarren lizentzia baimenak kudeatu + etxebizitzaren arloari baliabide propioak bideratu.
- Pertsonalgora/kontratazioa bereizi. Une honetan departamendu horrek duen lan karga izugarria da (pertsonalgora ia 5 milioi kudeatzen ditu eta lizitazio mordoa), enbutu ere bihurtzen da askotan, eta hori askatzea estrategikoa da, esku artean ditugun proiektu guztiei bide emateko. Ondorioz, 2024an programa bat sortuko dugu, eta pertsonalgora teknikaria ekarriko da.
- 2024a. Urtean 27 lanpostu egonkortzeko moduan izango gara, eta ondorioz, interinitate tasa modu esanguratsuan murriztuko dugu.
- Bigarren kapituluak: kapitulu honek, **gastu arruntari** dagokion kapituluak, gora egin du (**5.640.762,00 €**), aurreko urteko datuekin alderatuz, zehazki, 159.318,00 € (% 2,93) gehiago bideratuko ditugu. 2 arrazoi daude: prezioen garestitzeak eragindakoa + legealdi planean ditugun hainbat egitasmo bideratzeko aurreikusitako partidak daude.
- Prezioen garestitzeak ekarri du **argiteria publikoa edota gasaren partidak nabarmen igotzea**: Efizientzia energetikoaren inbertsiorik ezean, are handiagoa litzateke.
- **Hainbat lizitazio garestitzea**. Oso nabarmena da, esate baterako, honako zerbitzu hauetan:
  - kiroldegiko 3 lizitazio berri behar dira (harrera + solaresleak / ikastaroak + garbitasuna): 120.000 € gehiago behar dira, aurreko urtean baino.
  - Gaztelekua, udajolas...
- **Nabarmenezko da Haur eskola**. Ia 500.000 € bideratuko dira (sarreretan beherakada izango da, udalak gurasoen kuotaren %64a bere gain hartzea erabakitzearen ondorioz, doakotasunaren norabidean urratsak)
- **Garestitze horrek ekarri du hainbat eta hainbat partida ondo erreparatzea**, aurreko urteko exekuzioaren arabera aurreikustea, eta gerrikoa estutzea. Zuhurtzia, eta gastuaren kontrol zorrotzagoa, neurri gabeko gastuak, ahal dela, ekidinez.
- **Erronka/misioei + legealdiko planean aurreikusitakoei erantzuteko**:

- 1) Zaintza ekosistemaren inplementaziorako, lizitazio berria egingo dugu, 2024ko bide-orrrian aurreikusi ditugun ekimen eta proiektuak aurrera ateratzeko, udalak aurreikusi baino bidelaguntza handiagoa behar dugulako. Guztira, 115.000 €
- 2) Gazteria – kultura: Elkargunean proiektua definitzeko, parte-hartze prozesua egingo dugu: 18.000 €
- 3) Kirolaren plan estrategikoa garatzeko + beste hainbat proiektu: 30.000 €
- 4) Euskararen erabilera indartu eta harrera linguistikoan errefortzuak (euskara errefortzuak haur eta nerabeei + etorri berriei euskara ezagutza bermatu...) : 30.000 €
- 5) udalaren digitalizazioan urratsak, esate baterako, intranet berria: 15.000 €
- 6) 2030ingurumen agenda: 19.500 €
- 7) Nekazaritzaren sustapenerako: 10.000 €
- 8) Emakumeen etxeko programazioa: 40.000 € + bestelako programak (hezkidetzak, sexu aholkularitza...)
- 9) Usurbilbizi proiektuaren garapena

IV. kapitua ere izango du igoserarik datorren urtean. Guztira, **1.180.535 €** bideratuko ditugu dirulaguntza ezberdinetara, aurrekontu osoaren % **8,92. Iaz baino, 63.372 €** gehiago bideratuko ditugu.

Pandemiak eragindako beharizan berriei aurre egiteko abiatutako dirulaguntza deialdi guztiak mantentzen ditugu, besteak beste: eskola kirolerako dirulaguntza, merkatu libreko alokairuak ordaintzen laguntzeko partida, gazteen emantzipazioa sustatu nahi duena, kultur sormena sustatzeko laguntzak, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (90.000 €, jasotzen duguna baino askoz gehiago)...

Dirulaguntza hitzartu batzuk igo ditugu, herriko taldeei euren jardunean laguntzeko:

- Zumarte: 4000 € gehiago
- Auzoetako jai batzordeak.
- Santixabelak. 10.000 € gehiago
- Eskola Kirola/Zirimara: 14.000 € gehiago

5. kapitulari edota kreditu globalari eutsi diogu ere, eta 100.000 € gorde ditugu, aurreikusi gabeko gastu edo egitasmoei aurre egiteko. Azken urteek erakutsi digute zein garrantzitsua izan den diru-poltsa horretaz baliatzeko aukera izatea.

VI. kapituluua. Kapituluuen errebaso honetan ikus daitekeenez, VI. Kapituluak izan du beherakadarik handiena, aurreko urtearekin alderatuz gero: **686.574,09 € bideratuko ditugu, iaz baino 825.448,91 € gutxiago**, hau da, **% 56,34ko gutxitzea izan du partida honek.**

- Beste kapituluak igotzeak ekarri du VI. Kapitularako diru gutxiago izateak, baina horrek ez du esan nahi inbertsioetarako diru gehiago ez dela aurreikusten, izan ere, VII. Kapitulan gordetzen den dirua (kreditu transferentziak) udalak inbertsioak egiteko bideratuko duen dirua da, hirigintza hitzarmenen bidez egikarrituko dena. Inbertsio edota azpiegitura berri hauen hauen bidez, mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna sustatu nahi da, bai Kalezarren bai Txokoalden.
  - 1) **Kalezarren autobus geltoki berria + igogailua** egiteko Matiarekin hirigintza hitzarmen bat sinatu genuen iaz, eta hitzarmen horretan udalak konpromisoa hartu zuen 480.000 € bideratzea obra horretara. 300.000 € iazko aurrekontuetatik bideratu ziren, eta, gainerakoa (180.000 €) 2024ko aurrekontuen bizkar egingo da. Guztira, 1.500.000 € inguruko obra da,
  - 2) **Txokoaldeko zubia berritzea.** Udala eta ETSren artean hitzarmen bat ari gara lantzen, Txokoaldeko zubia berritzeko (ezinbestekoa da tunelaren obra egiteko), eta udalak konpromisoa hartu du hurrengo hiru urtetan, urtero, 100.000 € bideratzea ETSri, zubia berritzeko obra egiteko. Guztira, 1.400.000 € inguruko obra da.
- Horretaz gain, IX. Kapitulan, 255.000 € aurreikusten dira, Zumarte Musika Eskolako obra egiteko udalak eskatu zuen **mailegua** ordaintzeko. Beraz, inbertsio berriei ekin ez ezik, mailegu hori amortizatzen ahalagin handia egiten ari gara, udalaren zorpetze tasa gutxituz.
- **Beraz, bateko zein besteko, 3 kapituluetakoko diru partidak aintzat hartuz (VI. + VII. Eta IX), datorren urtean inbertsioetarako: 1.274.574,09€**
- VI. kapituluko diruarekin, zer 2024an?
- Honatx, beraz, 2024ko inbertsio nagusiak (bai 2024an aurreikusitakoak zein 2023ko aurrekontuetatik datozenak, 2024ean exekutatu direnak)

### 1) Trantsizio ekosoziala.

- Klima aldaketaren erronka globalari, tokikotik erantzuten jarraitzeko inbertsioak, nagusiki, energiaren alorrean. 2021an herriko argiteria publikoa aztertu eta proiektu bat landu zen: batetik, energia kontsumoa nola gutxitu aztertu zen eta, bestetik, efizienteagoak diren sistemak aztertu. Urteka egin beharreko inbertsioaz ari gara, beraz, datorren urtean ere beste 90.000 € bideratuko ditugu herriko argiteria berritzeko.
- Ingurumenean jasotako beste partida baten bitartez (40.000 €), plaka fotovoltaiko gehiago instalatzea aurreikusten da. Horretaz gainera, energia komunitateari bultzada bat emateko, udala kooperatiban laguntzea aurreikusten da.
- Usurbil 0.0, hondakinen kudeaketa osasungarria eta jasangarria: 23.000 €

- Mugikortasun aktibo eta jasangarriaren norabidean, kokatzen ditugu Kalezarko autobus geltoki berria + Txokoaldeko zubia (zubi berrian mugikortasun mota bakoitzak bere karril propioa izango du, oinezko eta bizikleten segurtasuna eta mugikortasuna sustatzea helburu duena)
- 2023ko aurrekontuetatik datozen partidak eta exekututzen ari direnak kontuan hartu behar ditugu, esaterako: Zumartegiko ibai ertza lehengoratzeko obra. Berriki hasi da. Proiektu honen bitartez, ibai ertza txukundu eta biziberrituko dugu, herritarrei natur eremu berri bat eskainiz eta herritarrak erriora gerturatuz

## 2) Auzo/herriak. Auzoak eraberritzeko obrak

- **Kalezar:** 50.000 € (kaxkoa oinezkotu eta autoen joan-etorria erregulatzeko sistema ezarri)
  - 2023tik datorrena eta datorren urtean gauzatuko diren obrak:
    - autobus geltoki berria eta igogailua (480.000 € guztira)
    - Haur eskola aurreko aldapa txukundu: 175.000 € (urte hasieran lizitatuko dira obrak, eta segituan hasiko dira)
    - Aurretik datorren Pelaiouenea. Atzerapen handiarekin bada ere, 2024an irekiko ditu bere ateak.
- **Agiña:** 20.000 € (Elutxen sortu den berdegune berrian belaunaldiartekotasuna sustatuko duten altzariz hornituko da. Agiñarrekin batera adostuko da zer egingo den)
  - 2023tik datorrena eta datorren urtean gauzatuko diren obrak:
    - Semaforoa
    - eliza Zaharra
    - Kaxkoko parkea, guraso talde eta Eskola Txikiarekin batera adostu dena
- **Zubieta:** 20.000 €. Zubietako Herri Batzarrarekin batera ari gara adosten zertara bideratu.
  - Aurten bertan hasiko gara Zubieta-Santuenea bidegorria gauzatzeko lanean; lurjabeekin hitzarmenak lotzen, ahal dela, 2025ean gauzatzen hasteko.
- **Santuenea:** 2023ko irailean onartutako kreditu aldaketaren bidez, auzoko sarrera berrantolatuko da (100.000 €).
- **Etxealdia:** Irisgarritasun Planaren 2. fasea gauzatzea. (350.000 €) obrak urte hasieran lizitatuko dira.

## 3) udalaren digitalizazioa

- ordenagailuen erosketa
- ...

## 4) 650usurbilbizi:

- Ez dok amairu parkea: **110.000 €**

**5) Ur sistema hobetzeko inbertsioekin jarraitu:** digitalizazioa (PERTE dirulaguntza bidez finantzatuko dena): **180.000 €**

**Urteak aurrera egin ahala, ez dugu baztertzen udalaren gerakina erabiltzeko aukera**, beste inbertsio batzuk bideratu ahal izateko. 2023ko likidazioa nola geratzen den itxaron behar, norabide honetan, erabakiren bat hartzeko. Hortaz, garaia iristean, aurrekontuari kreditu txertaketak egitea ez dugu baztertzen. Badugu, nora bideratu:

1) Aginagako saneamendua: 240.000 €

2) Ikastolako obra: 60.000 €

3) Liburutegia: 90.000 € (proiektua errebisatu egin behar da. Ikas gela liburutegitik ateratzen badugu, merkeagoa izango da. Orain lantalde bat sortzea komeni, proiektu hau erreparasatzeko!)

4) Barredora elektrikoa: 300.000 €